




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

Item liberatuak 2010



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Irakurri testua jakiteko gure herrian nork daukan botoa emateko eskubidea:



18 urtetik gorako herritar guztiek hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dute, beren ordezkariak aukeratzeko.

Beti ez da horrela izan. Duela ehun urte, emakumeek ezin zuten botoa eman ezta pertsona pobreek ere. Bakarrik gizon aberatsek botoa eman zezaketen.

1. Gaur egun, Espainiako jendeak hauteskunde politikoetan boto ematera joaten denean, nor hautatu dezake?

- A. Langileen presidentea.
- B. Enpresetako zuzendariak.
- C. Ikastetxeetako zuzendariak.
- D. Parlamentuko diputatuak.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. dimentsioa: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. azpi-konpetentzia: Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ezagutzen du zein ordezkari hautatzen diren Estatuko hauteskundeetan.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Parlamentuko diputatuak.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI-MAILA

2. 18 urte gorakoek botoa emateko eskubidea dute, baina, zer esan nahi du horrek?
- A. Ez dutela botorik eman behar.
 - B. Nahi badute, botoa eman dezaketela.
 - C. Derrigorrean botoa eman behar dutela.
 - D. Botoa ematen ez badute, ezin izango dutela inoiz eman.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 2. dimentsioa: Herritartasuna.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 5. azpi-konpetentzia: Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Ezagutzen du zer esan nahi duen bozkatzeko eskubidea izateak.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Nahi badute, botoa eman dezaketela.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
HASIERAKO MAILA

3. Demokraziaren ezaugarri bat parte hartzea da. Familian, eskolan eta baita lagunekin ere jarrera demokratikoak erakuts ditzakegu.

Aukeratu lau irudi hauen artean, zure ustez, jarrera demokratikoa adierazten duena:



A



B



C



D

- A. A irudia.
- B. B irudia.
- C. C irudia.
- D. D irudia.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. dimentsioa: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. azpi-konpetentzia: Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Eskolan jarrera demokratikoak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. A irudia.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
HASIERAKO MAILA

4. Demokrazian herritarrok eskubideak eta betebeharrak ditugu. Jarraian dauden esaldien artean, adierazi zeintzuk diren **ESKUBIDEAK** eta zeintzuk **BETEBEHARRAK**:



	ESKUBIDEA	BETEBEHARRA
a. Klean zaborrak paperontzi batera botatzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
b. Gaixorik nagoenean medikura joatea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
c. Bizikletaz ibiltzeko arauak errespetatzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
d. Gauza batekin ados ez banago, nire iritzia adieraztea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
e. Zure logelako gauzak ordenatzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. dimentsioa: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. azpi-konpetentzia: Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Herritar gisa duten eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	ESKUBIDEA	BETEBEHARRA
a. Klean zaborrak paperontzi batera botatzea.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
b. Gaixorik nagoenean medikura joatea.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
c. Bizikletaz ibiltzeko arauak errespetatzea.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
d. Gauza batekin ados ez banago, nire iritzia adieraztea.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
e. Zure logelako gauzak ordenatzea.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
FRDI- MAIL A

5. Kokatu zure burua ikastetxean eta adierazi, zure ustez, ikasle bezala nolako eskubideak eta betebeharrak dituzun. Hurrengo esaldietan seinalatu **ESKUBIDEA** edo **BETEBEHARRA** diren:



	ESKUBIDEA	BETEBEHARRA
a. Kalitate oneko hezkuntza jasotzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
b. Eskolako arauak betetzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
c. Eskola zaintzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. dimentsioa: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. azpi-konpetentzia: Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ikasle gisa duten eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	ESKUBIDEA	BETEBEHARRA
a. Kalitate oneko hezkuntza jasotzea.	<input checked="" type="checkbox"/>	
b. Eskolako arauak betetzea.		<input checked="" type="checkbox"/>
c. Eskola zaintzea.		<input checked="" type="checkbox"/>

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI- MAILA

TELEBISTA GURE BIZITZAN

Irakurri testua eta erantzun galderei:

Hamar egunez telebistarik gabe bizi daiteke

Frantziako Estrasburgoko ikastetxe bateko 254 ikasleek, sei-hamaika urte bitartekoek, telebista eta ordenagailua 10 egunez ez pizteko konpromisoa hartu dute.

Haur frantsesek urtean 850 ordu ematen dituzte ikastetxean eta 1.200 ordu telebistaren aurrean. Denbora horri ordenagailuan eta bideo-kontsolako jokoetan emandako denbora erantsi behar zaio. Xavier Rémy, ikastetxeko zuzendaria, honela mintzatu da: *"funtsean esperientzia hori abentura bat bezala bizitzea da. Proiektua Kanadatik heldu zaigu. Han oso emaitza onak izan zituen: haurrek indarkeria gutxiago erakusten zuten eta hitz gordin gutxiago esaten zituzten, baina hemen ez dakit zer gertatuko den"*.



Arratsaldean handienek saski-baloian egiten dute eta txikiak tailer ezberdinak antolatu dituzte (jostea, dantza...). Guztiek irakurtzen dute eta ahaztuta zituzten jokoak berreskuratu dituzte. Proiektu horretan familia inplikaturik dago. *"Gurasoek oso ondo dakite zein kaltegarria den telebistaren aurrean hainbeste ordu ematea"*, dio zuzendariak.

1. Zure ustez, zergatik egongo dira haur horiek hamar egunez telebista ikusi gabe?
 - A. Ikasten ordu gehiago emateko.
 - B. Saskibaloia, dantza eta beste joko batzuk gustatzen zaizkielako.
 - C. Kanadan antolatutako lehiaketa bat irabazteko.
 - D. Telebista ikusi gabe gauza dibertigarriak egin daitezkeela demostratzeko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. dimentsioa: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. azpi-kompetentzia: Gizarte, ekonomia, ekoizpena eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Telebista eta bideo jokoen kontsumo arduratsua bultzatzen duen esperientzia hezigarri baten xedea identifikatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Telebista ikusi gabe gauza dibertigarriak egin daitezkeela demostratzeko.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI MAILA



2. Adieraz ezazu telebista ikusteak, ordenagailua erabiltzeak eta bideo-kontsolekin jokatzek izan dezaketen **ondorio positibo bat**:

Ondorio positiboa	
-------------------	--

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. dimentsioa: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 4. azpi-kompetentzia: Informazioa eta komunikazioa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Telebistak ematen dituen aukera positibo batzuk baloratzen ditu (hezigarriak, aisialdirakoak, ikastekoak...).
- **ERANTZUN ZUZENA:** Item irekia.
- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK:**

Erantzun zuzenak:

Ondorio positiboa:	<p>Ondoko ideia bat adierazten duen erantzuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazioa lortzea, gertatzen denaz jabetzea, gaurkotasun-albisteez jabetzea, etxerako lanak egitea, etab. - Beste pertsonekin komunikatzea ordenagailuaren aplikazioen bidez. - Dibertitzea, ondo pasatzea. - Ikastea: beste kulturetatik, nola bizi diren beste herri batzuetan, nola bizi diren animaliak, etab. - ...
--------------------	---

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI MAILA

3. Adieraz ezazu egunero telebista ikusten eta ordenagailuarekin eta bideo-kontsolekin jokatzeko 4 ordu baino gehiago emateak izan dezakeen **ondorio negatibo bat**:



Ondorio negatiboa	
-------------------	--

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. dimentsioa: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 4. azpi-konpetentzia: Informazioa eta komunikazioa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Telebista, ordenagailu edota bideo jokoak gehiegi kontsumitzeak sor ditzakeen eragin negatiboren bat antzematen du (heziketakoa edo beste motatakoa).
- **ERANTZUN ZUZENA:** Item irekia.
- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK:**

Erantzun zuzenak:

Ondorio negatiboa	<p>Ondoko ideia bat adierazten duen erantzuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasteari uztea, gutxi ikastea, etxerako lanak ez egitea eta antzeko erantzunak. - Lagunekin ez jolastea, bakartzea / bakarrik geratzea, etab. - Aspertzea telebista gehiegi ikusteagatik. - Beste gauza interesgarri edo garrantzitsu batzuk egitea galarazten / oztopatzen du; adibidez, irakurtzea, kirola egitea, kalean jolastea, zinemara joatea, etxeko lanetan laguntzea, aitona-amonak bisitatzea, etab. - Bere adinerako egokiak ez diren telebista saioak ikustea. - Loditzea edo jarduera horietan denbora gehiegi ematearekin beste osasun-arazo batzuk (osasun fisikoa zein psikologikoa). - ...
-------------------	---

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI MAILA

4. Ikastetxeko zuzendariak dio Kanadako hurrek, telebista ikusteari utzi ziotenean, indarkeria gutxiago erakusten zutela eta hitz gordin gutxiago esaten zituztela.


Zure ustez, indarkeria eta edukazio txarra telebista ordu askotan ikustearekin erlazionatuta daude?

- A. Ez, hori Kanadan bakarrik gertatzen delako.
- B. Bai, telebistan indarkeriazko saioak baino ez dituztelako ematen.
- C. Telebistan ikusten duzun saio motaren arabera.
- D. Bai, haur bortitzek telebista asko ikusten dutelako.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1. dimentsioa: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 3. azpi-konpetentzia: Gizarte, ekonomia, ekoizpena eta kontsumoa.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Irizpide subjektiboetan oinarritutako informazioa kritikoki analizatzen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: C. Telebistan ikusten duzun saio motaren arabera.
- ***KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:***
ERDI MAILA

5. Ikastetxeko haurrek marrazki hau egin dute:



Zure ustez, zer adierazi nahi izan dute?

- A. Ez zaiela telebista ikustea gustatzen, ezta bideo-jokoekin jolastea ere.
- B. Guztiei liburuak irakurtzea telebista ikustea edo bideo-jokoak baino gehiago gustatzen zaiela.
- C. Telebista ikustea edo bideo-jokoak debekatzearen kontra daudela.
- D. Hamar egunez telebista ez ikusteko eta bideo-jokoak ez erabiltzeko proiektuaren alde daudela.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. dimentsioa: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. azpi-konpetentzia: Gizarte, ekonomia, ekoizpena eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Esperientzia hezigarri baten esparruan umeek sortutako marrazki bat interpretatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Hamar egunez telebista ez ikusteko eta bideo-jokoak ez erabiltzeko proiektuaren alde daudela.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI MAILA